Los interventores e interventoras deberán acreditar su condición ante la Mesa Electoral exhibiendo el apoderamiento y el Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento identificativo análogo.

## VII. KAPITULUA. ERREKURTSOAK

**29. artikulua**

Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen erabakien aurkako errekurtsoak Hauteskunde Batzordeari berari zuzendu beharko zaizkio, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkionak izan ezik. Errekurtsoak idatziz aurkeztuko dira, interesdunaren datu pertsonalekin eta, hala badagokio, izan dezakeen ordezkaritzarekin.

**30. artikulua**

1. Hauteskunde Batzordeak gehienez ere lau egun baliodunekoepean ebatziko du, errekurtsoa aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Errekurtsoa hauteskunde-egutegian adierazitako epean ebazten ez bada, ezetsitzat joko da, eta dagokion errekurtso-bidea irekiko da.

## CAPITULO VII. RECURSOS

**Artículo 29.**

Los recursos contra los acuerdos de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral deberán dirigirse a la propia Junta Electoral salvo los que competan al Comité Vasco de Justicia Deportiva. Los recursos se presentarán por escrito con los datos personales del interesado y la representación que, en su caso, pueda ostentar.

**Artículo 30.**

1. La Junta Electoral resolverá en el plazo máximo de cuatro días hábiles desde el día siguiente a la presentación del recurso.

2. En caso de que el recurso no fuera resuelto en el plazo indicado en el calendario electoral se considerará desestimado, quedando expedita la vía de recurso que corresponda.

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

3. Berraztertzeko hauteskunde-errekurtsoak ebazten dituzten Hauteskunde Batzordearen ebazpenek federazio-bidea agortzen dute, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

3. Las resoluciones de la Junta Electoral que resuelvan recursos electorales de reposición agotan la vía federativa y podrán ser recurridos ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

4. Hauteskunde Batzordeari dagokio organo eskudunen hauteskunde-erabakiak betearaztea, federazioko organo egokien beharrezko laguntzarekin.

4. La ejecución de las decisiones electorales de los órganos competentes corresponde a la Junta Electoral con la colaboración necesaria de los órganos federativos pertinentes.

5. Hauteskunde Batzordearen erabakiak betearazleak izango dira.

5. Las decisiones de la Junta Electoral tendrán carácter ejecutivo.

6. Egintza jakin batzuk deuseztatuz gero, gorde egingo dira irregulartasuna egin ez balitz berdin mantenduko ziren edukiak eta izapideak.

6. La anulación de determinados actos implicará la conservación de aquellos contenidos y trámites que se hubieran mantenido igual de no haberse cometido la irregularidad.

## VIII. KAPITULUA. BATZAR NAGUSIAREN OSAERA

## CAPITULO VIII. COMPOSICIÓN DE LA ASAMBLEA GENERAL

**31. artikulua**

Federazioaren Batzar Nagusia Hauteskunde Batzordearen ebazpen bidez eratuko da, eta lau urtean behin egingo da, udako joko olinpikoak egiten diren urteetan.

**Artículo 31.**

La Asamblea General de la Federación se conformará por resolución de la Junta Electoral y con carácter ordinario cada cuatro años coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos de verano.

**32. artikulua**

1. Batzar Nagusian kirol-klubak, sozietate anonimoak eta kirol-elkarteak bakarrik egongo dira ordezkatuta.

2. Batzarkidea pertsona juridikoa da, ez haren ordezkari gisa jarduten duen pertsona fisikoa.

**Artículo 32.**

1. En la Asamblea General estarán representados únicamente los clubes deportivos, sociedades anónimas y las agrupaciones deportivas.

2. La condición de asambleísta la ostenta la persona jurídica, no la persona física que actúa como su representante.

**33. artikulua**

1. Batzar Nagusiko kide izango dira aurreko artikuluan aipatutako kirol entitateak, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte: EAEko Kirol Erakundeen Erroldan izena emanda egotea eta Federazioko kide izatea; olinpiar urteko bigarren seihilekoari dagokion denboraldian gutxienez jardunean dauden kirolarien10 lizentzia izatea izapidetuta, eta aurreko denboraldian ere eduki izatea eta, gainera, denboraldi horretan kirol jarduera nabarmena egin izana.

**Artículo 33.**

1. Formarán parte de la Asamblea General las entidades deportivas citadas en el artículo precedente que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y afiliadas a la Federación, tengan al menos tramitadas 10 licencias de deportista en activo durante la temporada que finaliza en el año olímpico y en el año anterior y/o organizado una actividad deportiva significativa, durante la temporada del año olímpico y que la hayan tenido en la temporada anterior.

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira ikasle adinako kirol lizentziak.

2. A los efectos de lo previsto en el apartado anterior, se computarán las licencias de deporte en edad escolar.

3. Artikulu honen lehenengo apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kirol jarduera nabarmentzat hartuko da kirol-lehiaketa federatu ofizialetan edo lagunartekoetan parte hartzea, baldin eta azken horietan dagokion federazioak erakunde antolatzaile, babesle edo laguntzaile gisa esku hartu badu. Ondorio horietarako, erakunde batek parte hartu duela ulertuko da kirol-ekitaldi ofizial edo lagunartekoren bat antolatzen badu, baldin eta lagunarteko ekitaldi horretan federazioak erakunde antolatzaile, babesle edo laguntzaile gisa esku hartzen badu.

3. A los efectos de lo previsto en el apartado primero de este artículo se entenderá por actividad deportiva significativa la participación en el seno de competiciones deportivas federadas oficiales o amistosas, siempre que en estas últimas la federación correspondiente haya intervenido en calidad de entidad organizadora, patrocinadora o colaboradora. A tales efectos, se considerará que una entidad ha participado si organiza algún evento deportivo oficial o amistoso, siempre que en dicho evento amistoso la federación intervenga como entidad organizadora, patrocinadora o colaboradora.

4. Batzar Orokorrean honako irizpide hauen araberako boto haztatua egongo da:

- 10 eta 199 lizentzia arteko boto 1 eta 2 boto 200 lizentzia edo gehiago, oraingo eta aurreko denboraldietan izapidetuak

- Euskal Ligan, aurtengo eta aurreko denboraldietan, bela arinean lehiatzen ari diren 7 ureztatzailetik gorako boto bat.

- Bela arinaren proba ofizialak antolatzeagatiko boto 1 oraingo eta aurreko denboraldietan.

- Lehiaketa ofizialetan edo gurutza ontzien estropada ofizialen antolakuntzan parte hartzen duten 3 itsas ontzitik gorako boto 1, oraingo eta aurreko denboraldietan.

4. En la Asamblea General existirá voto ponderado con arreglo a los siguientes criterios:

- 1 Voto entre 10 y 199 licencias y 2 votos 200 o más licencias. tramitadas en la temporada actual y anterior

- 1 Voto a partir de 7 o más regatistas compitiendo en vela ligera en la Liga Vasca en la temporada actual y anterior

- 1 Voto por organización de pruebas oficiales de vela ligera en la temporada actual y anterior.

- 1 Voto a partir de 3 embarcaciones de cruceros participantes en competiciones oficiales o por organización de regatas oficiales de cruceros, en la temporada actual y anterior.

5. Kirol klubek beren boto haztatuari dagokion boto-paper kopurua jasoko dute Hauteskunde Batzordetik.

5. Los clubes deportivos recibirán de la Junta Electoral el número de papeletas correspondiente a su voto ponderado.

6. Boto haztatua ezartzerakoan kirol kluben kirol egoera aldatuz gero, horrek ez du esan nahi lau urteko agintaldian boto haztatu hori aldatu behar denik.

6. La modificación de la situación deportiva de los clubes deportivos en orden al establecimiento del voto ponderado no obligará a modificar el citado voto ponderado a lo largo del mandato de cuatro años.

## IX. KAPITULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEA HAUTATZEA

## CAPITULO IX. ELECCIÓN DE LA JUNTA DIRECTIVA

**34. artikulua**

**Artículo 34.**

1. Federazioaren Batzar Nagusia osatzen duten pertsonek aukeratuko dute Zuzendaritza Batzordea.

1. La Junta Directiva será elegida por las personas integrantes de la Asamblea General de la Federación.

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

2. Hautagarriak izango dira hauteskunde-deialdia onartzen den unean hemezortzi urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoak, izan kirolari, entrenatzaile edo epaileak, federatuta daudenak edo federatuta egon direnak 2010 urtetik 2023 urtera bitartean, biak barne. Era berean, kirol-klubak, kirol-sozietate anonimoak eta kirol-elkarteak ere hautagarriak izango dira.

2. Tendrán la condición de elegibles las personas físicas, sean deportistas, entrenadores o entrenadoras, jueces o juezas, mayores de dieciocho años en el momento de aprobación de la convocatoria de elecciones, que sean federadas o que lo hayan sido en el periodo que comprenden los años 2010 y 2023, ambos incluidos. Igualmente, serán elegibles los clubes deportivos, sociedades anónimas deportivas y las agrupaciones deportivas.

3. Hauteskunde Batzordeak, Federazioaren administrazio-zerbitzuen laguntzarekin, egiaztatuko du hautagai-zerrendetako kide guztiek federazio-afiliazioaren baldintza betetzen dutela.

3. La Junta Electoral verificará, con la colaboración de los servicios administrativos de la Federación, que todas las personas integrantes de las candidaturas cumplen el requisito de la afiliación federativa.

**35. artikulua**

**Artículo 35.**

1. Zuzendaritza Batzordeko hautagai-zerrendek federazioko estamentu guztietako ordezkariak izan beharko dituzte. Pertsona fisikoen estamentu bat pertsona fisiko batek baino gehiagok ordezkatzen badute Zuzendaritza Batzordean, estamentu horretako gizonen eta emakumeen ordezkaritza egon beharko da nahitaez.

1. Las listas de las candidaturas de Junta Directiva deberán incluir representantes de todos los estamentos federativos. En el supuesto de que un estamento de personas físicas esté representado en la Junta Directiva por más de una persona física, deberá existir necesariamente representación masculina y femenina de ese estamento.

2. Hautagai-zerrendak Hauteskunde Batzordeak prestatutako ereduan aurkeztu beharko dira, zerrenda itxi baten bidez, ordezkoak barne, 7 egun naturaleko epean.

2. Las candidaturas deberán presentarse, mediante lista cerrada, incluyendo los posibles suplentes, en el modelo elaborado por la Junta Electoral durante un plazo de 7 días naturales.

3. Hautagai-zerrenda kide guztiek sinatu beharko dute, Nortasun Agiri Nazionalaren edo antzeko beste agiriren baten zenbakia erantsita.

3. La candidatura deberá ser firmada por todos sus componentes incluyendo el número de Documento Nacional de Identidad o documento análogo.

4. Hautagai-zerrendak ezin izango dira aldatu aurkeztu ondoren.

4. Las candidaturas no podrán ser modificadas una vez presentadas.

5. Aurkezten diren hautagaitza itxien zerrendek errespetatu beharko dituzte Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko urriaren 22ko Aginduak, hauteskunde erregelamenduak prestatzeko irizpideak finkatzekoak, 48.4 artikuluan aurreikusitako gizon eta emakumeen ehunekoak, federazio-organo horretan emakumeen ordezkaritza egokia ahalbidetzeko.

5. Las listas de candidaturas cerradas que se presenten deberán respetar los porcentajes de hombres y mujeres previstos en el artículo 48.4 de la Orden de 22 de octubre de 2024, de la Vicepresidenta Primera y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales con el fin de posibilitar una adecuada representación femenina en este órgano federativo.

6. Hauteskunde Batzordeak ofizioz egiaztatu beharko du, Federazioaren administrazio-zerbitzuen laguntzarekin, hautagai-zerrendetako kideek betetzen dituztela erregelamendu honetan ezarritako baldintzak, eta, bereziki, agintaldiak mugatzeari buruzko estatutu-arauak.

6. La Junta Electoral estará obligada a verificar, de oficio, con la colaboración de los servicios administrativos de la Federación, que las personas integrantes de las candidaturas cumplen los requisitos establecidos en este Reglamento y, especialmente, las normas estatutarias sobre limitación de mandatos.

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

**36. artikulua**

1. Hautagai-zerrendak aurkezteko epea amaitutakoan, Hauteskunde Batzordeak horien onargarritasunari buruzko ebazpena emango du.

2. Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak onartzeko edo ez onartzeko hartzen duen erabakiaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hauteskunde Batzordeari berari, bi egun balioduneko epean.

3. Hautagai-zerrendaren batek zuzendu daitezkeen akatsak baditu, gehienez ere bi egun balioduneko epean erregularizatu ahal izango dira.

**Artículo 36.**

1. Concluido el plazo de presentación de candidaturas, la Junta Electoral resolverá sobre su admisibilidad.

2. La admisión o inadmisión de candidaturas por la Junta Electoral será recurrible ante la propia Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles.

3. Si alguna candidatura contuviera errores subsanables éstos serán regularizables en el plazo máximo de dos días hábiles.

**37. artikulua**

Hautagai-zerrendak behin betiko onartu ondoren, Hauteskunde Batzordeak Batzar Nagusirako deia egingo du, formalki eratzeko eta, hala badagokio, hautagai-zerrendak bozkatzeko. Deialdia egingo da, nahiz eta hauteskunde-egutegian batzar-bilkuraren data agertu.

**Artículo 37.**

Admitidas definitivamente las candidaturas, la Junta Electoral convocará a la Asamblea General para su constitución formal y, en su caso, votación de candidaturas. Esta convocatoria se realizará, aunque ya figure la fecha de la sesión asamblearia en el calendario electoral.

**38. artikulua**

Batzar Nagusia eratu ondoren, beharrezkoa izanez gero, Hauteskunde Batzordeak zozketa bidez izendatuko ditu hauteskunde-mahaiko kideak, ezein hautagai-zerrendatan agertzen ez diren batzarkideen artetik.

**Artículo 38.**

Una vez constituida la Asamblea General, si fuera necesario, la Junta Electoral designará, por sorteo, entre las personas asambleístas que no figuren en ninguna candidatura, a las personas integrantes de la mesa electoral.

**39. artikulua**

1. Hautagai-zerrenda bakoitzak bozketaren aurretik parte hartu ahal izango du, bere programa azaltzeko, gehienez ere 15 minutuz, kontraerantzunik eta eztabaidarik gabe.

2. Hauteskunde Mahaiak zuzendutako zozketa bidez ebatziko da esku hartzeko hurrenkera.

**Artículo 39.**

1. Cada candidatura podrá intervenir antes de la votación, para exponer su programa, durante un tiempo máximo de 15 minutos, sin réplicas ni debates.

2. El orden de intervención se resolverá mediante sorteo dirigido por la Mesa Electoral.

**40. artikulua**

1. Hauteskunde Mahaiko lehendakariak izen-abizenez hots egingo die batzarkideei, aukeratzen duten hautagai-zerrendaren boto-papera sar dezaten propio jarritako hautestontzian.

**Artículo 40.**

1. Para la votación la Presidencia de la Mesa Electoral llamará nominalmente a cada miembro de la Asamblea para depositar la o las papeletas de la candidatura elegida en la urna habilitada al efecto.

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

2. Botoa sekretua izango da, eta Hauteskunde Batzordeak emandako boto-paper ofiziala erabiliko da horretarako. Botoa emateko, hautesle bakoitzak bere nortasuna egiaztatu beharko du, nortasun-agiri nazionala, pasaportea, gidatzeko baimena edo nortasuna egiaztatzeko baliagarria den beste agiriren bat aurkeztuz. Pertsona juridikoek entitatearen idazkariak egin eta lehendakariak ontzat emandako ziurtagiri bat aurkeztuko dute, egiaztatzen duena nor den erakundearen ordezkari legala edo nork jaso duen botazioetarako ahalordea.

2. El voto, que será secreto, se efectuará mediante la papeleta oficial proporcionada por la Junta Electoral. Para votar, se deberá acreditar la personalidad con la presentación del documento nacional de identidad, pasaporte, permiso de conducción u otro documento análogo que le identifique. Las personas jurídicas presentarán una certificación, expedida por el secretario o secretaria de la entidad, con el Visto Bueno de la presidenta o presidente, acreditativa de quien ostenta la representación legal de la entidad o de quien ha recibido el apoderamiento para las votaciones.

3. Izapide hori bete eta gero, hautesle bakoitzak boto-papera emango dio Hauteskunde Mahaiko lehendakariari, eta horrek hautetsontzian sartuko du.

3. Cumplimentado dicho trámite, cada votante entregará la papeleta a la presidencia de la Mesa Electoral quien introducirá la misma en la urna correspondiente.

**41. artikulua**

**Artículo 41.**

1. Bozketa amaitutakoan, Hauteskunde Mahaiak dagokion zenbaketa egingo du.

2. Baliogabeak izango dira Hauteskunde Batzordeak ofizialki onartutako ereduaz besteko gutun-azal edo boto-paperetan emandako botoak, eta baita gutun-azalik gabeak edota hautagai-zerrenda desberdinetako boto-paper bat baino gehiago duten gutun-azaletan emandakoak ere. Gutun-azaletan hautagai-zerrenda bereko boto-paper bat baino gehiago baldin badago, baliozko boto bakar gisa zenbatuko da.

3. Halaber, baliogabeak izango dira boto-paperean hautagaien izenak aldatu, erantsi, markatu edo ezabatu baldin badira, edota jarrita dauden hurrenkera moldatu bada; gauza bera beste edozein aldaketa gertatu bada boto-paperean.

4. Zuriz emandako bototzat hartuko dira boto-paperik gabeko gutun-azalak edota boto-paper zuriak dituztenak.

1. Terminada la votación, la Mesa Electoral efectuará el escrutinio correspondiente.

2. Serán nulos los votos emitidos en sobres o papeletas diferentes del modelo oficialmente aprobado por la Junta Electoral, así como los votos emitidos en papeletas sin sobre o en sobres que contengan más de una papeleta de distinta candidatura. En el supuesto de que los sobres contengan más de una papeleta de la misma candidatura se computará como un solo voto válido.

3. Serán también nulos los votos emitidos en papeletas en las que se hubiera modificado, añadido, señalado o tachado nombres comprendidos en ella o alterado su orden de colocación, así como aquellas en las que se hubiera producido cualquier otro tipo de alteración.

4. Se considerarán votos en blanco aquellos sobres que no contengan papeletas o con papeletas en blanco.

**42. artikulua**

Hautagai irabazlea baliozko botoen gehiengoa lortu duena izango da, eta Federazioko lehendakari izendatuko da gehiengoa lortu duen hautagai-zerrendako burua.

**Artículo 42.**

Se proclamará como candidatura ganadora la que hubiera obtenido la mayoría de los votos válidos, declarando presidente o presidenta de la Federación a quien encabece la candidatura mayoritaria.

**43. artikulua**

1. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da Hauteskunde Batzordeak erabakitzen duen egunean,

**Artículo 43.**

1. En caso de empate, se celebrará una nueva votación en la fecha que acuerde la Junta Electoral, siendo

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

eta berdinduta geratu direnak izango dira bozketa berrian hautagai.

candidaturas elegibles en la nueva votación, quienes hubieran resultado empatadas.

2. Berdinketak jarraitzen badu, emakumeak buru dituzten hautagai-zerrendak aukeratuko dira.

2. Si persiste el empate, resultarán elegidas las candidaturas encabezadas por mujeres.

3. Aurreko irizpidearekin berdinketa ebazterik ez badago, Hauteskunde Batzordeak, gehienez ere zazpi eguneko epean, zozketa egingo du berdindutako hautagai-zerrenden artean.

3. Si no se puede resolver el empate con el criterio anterior, la Junta Electoral procederá en el plazo máximo de siete días a un sorteo entre las candidaturas empatadas.

**44. artikulua**

Hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak aurkezteko beste epe bat irekiko du, eta egutegia aldatuko du.

**Artículo 44.**

En caso de no presentarse ninguna candidatura, la Junta Electoral volverá a abrir un nuevo plazo de presentación de candidaturas con la modificación consiguiente del calendario.

**45. artikulua**

Administrazio-organorako hautagai-zerrenda bakarra dagoenean, ez da bozketarik egin beharko, eta Hauteskunde Batzordeak irabazletzat joko du behin betiko onartutako hautagai-zerrenda.

**Artículo 45.**

Cuando exista una sola candidatura para el órgano de administración, no será necesaria votación alguna, procediendo la Junta Electoral a proclamar a la candidatura admitida definitivamente como ganadora.

**46. artikulua**

Bozketa amaitutakoan, Hauteskunde Mahaiak boto zenbaketa egingo du eta horrren akta egingo du, artekarien erreklamazioak jasota. Akta hori Hauteskunde Batzordeari bidaliko zaio, boto-paperekin batera, salbu eta Hauteskunde Batzordeak Hauteskunde Mahaiaren eginkizunak ere bere gain hartzen baditu.

**Artículo 46.**

Terminada la votación, la Mesa Electoral efectuará el escrutinio y levantará acta del mismo incluyendo las reclamaciones de las personas interventoras, acta que se remitirá seguidamente a la Junta Electoral con las papeletas de voto, salvo que la Junta Electoral también asuma las funciones de Mesa Electoral.

**47. artikulua**

1. Hauteskunde Batzordeak, zenbaketaren emaitzak eta bozketaren gorabeherak biltzen dituen akta jaso ondoren, hautagai-zerrenda irabazlearen buru den pertsona izendatuko du lehendakari behin-behinean, baita Zuzendaritza Batzordeko kideak ere.

2. Hautagai-zerrenda irabazleak behin-behinean aldarrikaturik, eta aurkeztutako erreklamazioak edo errekurtsoak ebatzi eta gero, behin betiko aldarrikapena egingo da. Hortik aurrera, hautatutako karguak bere eginkizunak burutu ahal izango ditu, jabetza-ekintza formalik egin beharrik gabe.

**Artículo 47.**

1. La Junta Electoral, recibida el acta con los resultados del escrutinio y con las incidencias de la votación, proclamará provisionalmente a quien encabece la candidatura ganadora como Presidente o Presidenta y a los miembros de la Junta Directiva.

2. Una vez proclamadas provisionalmente las candidaturas ganadoras y resueltas, en su caso, las reclamaciones o recursos presentados, se realizará la proclamación definitiva. A partir de este momento, el cargo electo podrá ejercer sus funciones sin necesidad de acto formal de toma de posesión.

**LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA**

Federazioko lehendakariak hauteskundeetarako deialdia egingo du hauteskunde erregelamendua onartu ondoren, eta une horretatik aurrera jarduneko

**DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA**

La Presidencia de la Federación efectuará la convocatoria de elecciones, una vez aprobado el reglamento electoral, considerándose a partir de este

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

lehendakaritzat hartuko da, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak bezala.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Erregelamendu honek kirol klub edo kirol entitateei buruz egiten dituen aipamenek kirol sozietate anonimoak eta kirol elkarteak ere hartzen dituzte barnean.

**AZKEN XEDAPENA**

Hauteskunde erregelamendu hau Federazioaren web orrian edota AFEDEGIren eta kirol arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritzaren egoitza elektronikoan osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioz, erregelamendu honek ez du ondoriorik izango bi euskarrietan osorik argitaratu arte.

momento como presidente o presidenta en funciones al igual que el resto de la Junta Directiva.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA**

Las referencias que el presente Reglamento realiza a los clubes deportivos o entidades deportivas comprenden también a las sociedades anónimas deportivas y agrupaciones deportivas.

**DISPOSICION FINAL**

El presente Reglamento Electoral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación íntegra en la página web de la Federación y/o AFEDEGI y en la sede electrónica de la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa con competencia en materia deportiva. En consecuencia, el presente Reglamento no surtirá efectos hasta su integra publicación en ambos soportes.

FAEBbed854e4-e9bd-40b0-a299-3110c60000f5

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

## Sinadura laburpena

## Resumen de firmas

EB-KG-KI-2025-0433

Izenburua | Título:

Bela Federazioaren hauteskunde Erregelamendua onestea
Aprobación Reglamento Electoral Federación de Vela

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den zuzendaritza ebazpen originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la resolución de dirección original a la que hace referencia este documento.

**Sinatzailea | Firmante:**RAMAJO MARCOS, ROBERTO

**Data | Fecha:**2025eko maiatzaren 19an

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.